

AHTa GELDITZEKO MENDI IBILALDIAK EGINGO DIRA DONOSTIALDEA-BIDASOAN ABENDUAREN 2AN

Abenduaren 2an, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako mendi ibilaldiak egingo dira Donostialdea-Bidasoan. Eskualde honetan AHT GELDITU! Elkarlana osatzen duten talde eta erakundeek ekimen bateratu honek ekologia nahiz gizarte arloetan kalte larriak eragingo lituzkeen egitasmo hori geldiarazteko aldarrikatzen du. Igande horretan bi ibilaldi abiatuko dira, bata Irundik eta bestea Hernanitik, eta eguerdi aldera Erreterian bat egingo dute.

Goizeko 9etan hasiko dira ibilaldiak: Urumea bailaran barrena abiatuko den zutabea **Hernaniko Gudarien Plazatik**; eta Bidasoa-Oarsoaldeako zutabea bilduko den jendea Irungo **Landetxa auzoko Topoaren tren geltokitik**. Dena den, ibilbide osoa egin behar izan gabe, auzo kaltetuetako bizilagunei edota bide zati bat bakarrik egitea nahiago duten pertsona guztiei ere ekimen honetan parte hartzera dei egiten diegu, Urumeako erriberetako nahiz Oarsoaldeako auzo kaltetuetan igaroko garenean ibiltariekin bat eginez, hala **Ergobiako zubian 10etan** eta **Martuteneko paseoan 11etan** nola Oiartzungo **Gurutze auzoan 11etan** eta Arraguan **eguerdiko 12tan**.

Ibilaldietan AHTa nola garraiorako beste hainbat azpiegitura handi eraikitzeotan eskualdean eragingo liratekeen ondorio bortitzak salatuko dira. Ibilaldiak egiteko 3 ordu eta erdi oinez behar dira eta **eguerdiko ordu batean bat egingo dute bi zutabeek Erreteriarako sarreran**, Pontika auzotik hurbil **Arramendiko benta** izandako baserri-etxearen parean. Hortik abiatuta **kalejira** erreibindikatioa egingo da Oretetako kaleetan barrena. Hori amaitutakoan **herri bazkaria** ospatuko da Txintzarri elkartean, eta lokal horretan, bazkalondoan, batzar-solasaldia egingo da. Bidasoaren bi aldeetan AHTa eta garraio azpiegitura handien afera zertan dagoen eztabaidatzeko, Urruñako Urdazuri-Bidasoa AHTaren aurkako elkarteko partaideek eta gure eskualdean sortu diren taldeetako kideek hitz egingo dute.

AHT GELDITU! Elkarlanaren ekimen honek Donostialdea-Bidasoa eskualdean AHTaren kontrako informazioari eta gizartearen erantzunari bultzada bat eman nahi dio, AHTak berekin ekarriko lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoengatik, baita bere justifikazio faltagatik ere, arbuio sozial zabala jaso duen egitasmo honen aurrean mobilizazioaren bideari eusteko.

Hortaz, jende guztia abenduaren 2ko ibilaldietan parte hartzera animatu nahi dugu, baita ekintza horren inguruan datozen egunetan herriz herri egingo diren hitzaldietan eta ekitaldietan ere.

Azkenik, AHTa gelditzea eskatzeko egingo den hurrengo manifestazioan parte hartzera deitzen dugu. Abenduaren 15ean egingo da mobilizazio hau, Arrasaten.

AHTak ESKUALDEAN ERAGINGO LITUZKEEN ONDORIOAK:

Arrazoi asko dira AHTaren aurka egoteko. Honako hauek dira, besteak beste, egitasmo hori inoiz gauzatuko balitz eskualdean eragingo lituzkeen ondorio ekologiko eta sozial larrienak:

Azpiegitura erraldoi honen eraikuntza lanek eragindako inpaktu larriak: Hernanitik Irunera doan zatian 25 kilometro Abiadura Handiko trenbide eraikiko lirateke, 250-280km/orduko gehienezko abiaduran ibiltzeko, "Euskal Y"aren proiektuaren arabera. Garraio azpiegiturei dagokienean, inon denik adibide gogor eta bortitzenetakoa da beraz. AHTaren azpiegiturek behar dituzten baldintzak oso zorrotzak dira eta afektaturiko lurraldearen izaera menditsua kontuan hartuta, lan erraldoiak egin behar dira nahitanahiez: sekulako bidezubiak sortuko ditu (eskualdean 4.760m egingo ditu biadukto handien bidez), indusketa lan eta tunel izugarriak (eskualdean 12.400m ditu tunelean, Arkaleko haitzak zeharkatzeko tunelek guztira 5.493m dituzte kasu, eta San Markosekoak 2.740m). Bestalde, lanen tamaina dela eta, tunelak egitearen ondoriozko lur soberakinak botatzeko hondakindegia ugari sortuko dira (Hernani-Irun zatian 83 hektarea lur hartuko dituzte hondakindegia horiek), eta harrobien ustiakuntza asko handituko dela aurrikus daiteke, baita berriak zabalduko ere. Aipagarria da, halaber, AHTaren trazaketak 13 zabortegei toxiko eta arriskugarri zuzenean

harrapatzen dituela, Landetxako zabortegi zaharra kasu (baita agian San Markosekoa ere), konponbide gaiztoa duten arazo berriak sortuta.

Urumea ibaian inpaktua: Aipamen berezia egitea merezi du Urumea ibaiarekiko erasoak. Izan ere, AHTaren geltokia Astigarragako erriberan eraikitzeak Urumea ibaiaren ibaibide naturalaren eta ibaiertzen erabateko suntsiketa eragingo luke, 2.500 metroko luzeran Hernaniko Florida auzoaren parean hasi eta Martuteneko erriberaraino. *“Urumea ibaiaren gaineko eragina ‘Euskal Y’aren proiektuan egiten den handiena eta garrantzitsuena da”*, onartzen du Eusko Jaurlaritzak, Urumea ibaian eragingo litzatekeen ingurugiro eraso latz honen inguruan egindako alegazioei emandako erantzunean, eta, gaineratzen duenez, horrek *“Martutene eta Loiola auzoetan uholde arriskuek okerrera egin dezaten ekar dezake”*.

Azpiegitura egitasmoen pilaketak eragindako inpaktuaren efektu biderkatzailea: Ezin da eskualdean AHTak bakarrik izango lukeen eragina baloratu, eta erakundeen asmoak betetzekotan bertan pilatuko liratekeen taxi bereko beste azpiegitura-lan guztiek batera izango duten eragin akumulatiboa kontuan hartu behar da (A-8 Autopista, N-1 Autobidea, Donostiako Bigarren Gerrikoa, Urumeako Autobia, Jaizkibelgo Superportua, Irun eta Gaintxurizketa aldeko garraio plataformen hedapena, eta abar). Mota honetako azpiegituren pilaketaren eta saturazioaren ondorioz eskualde osoan eragingo litzatekeen ingurugiro suntsidura ikaragarria da, kalteturiko hainbat auzotan bizi-baldintzen okertzea azken nuturreraino eramanez.

Nekazal eremuan eragin oso larria: AHTaren egitasmoak onartzen duenez, Hernani eta Irun arteko zatian *“orokorrean ongi kontserbaturiko belardi zein nekazaritzako lur-eremuen eta baserrietan barrena iragaten da”*, eta galduko liratekeen lurretatik batzuk onenetakoak dira, Martuteneko ibarra kasu. Tarte horretan Gaintxurizketa aldea trenbide zein errepede sare berriei loturiko garraio plataformen hedapen bortitz batek suntsituko luke. Egitasmo horiek ez dira nekazaritzako eremuak eta erabilerak integratu eta gordetzeko gauza. Oraindik orain, hain zuzen ere, hedabideetan aipagai izan da Donostialdea-Bidasoa eskualdeko baserrien erabateko desagertapenaz alerta eman duen azterketa bat. Eskualdeko nekazal inguruak ezin du, beraz, horrelako azpiegitura handien eraginak etenik gabe jasaten jarraitu, eta gure ustez baserri-lurren eta jardueren hondamena gelditu egin behar da, arrazoi ekologiko, sozial, ekonomiko zein kulturalengatik.

Zarata kutsadura: AHTaren egitasmoak inpaktu akustikoa trazaketa guztian larrizat jotzen du eta, kalkulatu duenez, *“trenbidearen bi aldeetara 250 metroko korridorean zarata 94 eta 79 dezibelio bitartekoa izan daiteke”*, onargarritzak ematen dituen mailak gaudituz. Hernani-Irun zatian berrehun etxe baino gehiagotan zarata arazo gogorrak pairatuko lituzkete beraz.

Eraso paisajistikoa: Inpaktu paisajistikoari buruz, egitasmoak onartzen duenez, *“Hernani eta Irun arteko zatian kalteak handiak izan daitezke”*, eta, gaineratzen duenez, kalteturiko tokietan *“auzoetako bizilagunak maiz ibili ohi dira, paseatzeko eta aisialdirako leku egokiak baitira hurbileko hirigune handi eta dentsuak biztanleentzat”*. Nolanahi ere, AHTak eta egin asmo diren azpiegitura guztiek eskualdeko paisaiari kolpe latza emango liokete, bertakoek hain gogoko duten eta ibilaldi eta antzeko aisialdietarako oso erabiliak diren ingurune horiek desagertaraziz. Kultura aldetik esangura duten hainbat leku eta elementuren desagertapena ere ekarriko luke, dela natur ondare zein baserri giroko ondareak direlako, ondorioz zonalde guztian kultur aldetik galera nabarmena eraginez.

Kutsadura atmosferiko eta elektromagnetikoa: Energiaren alorrean AHTak neurrigabeko kontsumoa dakar eta horrek kutsadura eta poluzio atmosferiko larriak sortzen ditu. Zentral termiko eta nuklearretan argi-ingar ekoizpenaren ondorioa da hori. AHT batek 300km/orduak abiadura dabilenean xahutzen duen energia 25.000 bizilaguneko herri batek etxebizitzetan gastatzen duenaren parekoa da. Inpaktu larria sortzen da energia eskariaren gorakada nabarmena eragin eta ondorioz gai kutsatzaileen jaurtiketarekin poluzioa eskala globalean areagotzen delako. Bestalde, AHTaren elektrifikazio sistema 25.000V eta korrante alternokoa da, eta horrek kutsadura elektromagnetikoa eragiten du. Kutsadura mota hori aztergai da egun, osasunarentzat kaltegarria ez dela ziurra baita: besteak beste, hormona eta proteinen ekoizpen mekanismoan, minbizietan, leuzemietan eta sistema immunologikoan eragiten du. Erradiazio elektromagnetiko horiek eragindako espazioaren zabalera 200 eta 800 metro bitartekoa izaten denez, kalteturiko lur-eremua eta biztanleria handia da. Azpimarragarria da gainera gure eskualdean AHTaren eta errepede azpiegitura handien pilaketak modu ezberdinetan eragindako kutsaduraren efektu biderkatzailea.

Azpiegitura honen ezaugarri bereziek dakarten arriskugarritasuna: Izaera honetako trenbide azpiegitura batek, aldi berean bidaiarien Abiadura Handiko zirkulaziorako (250-280km/orduko) eta merkantzien garraiorako bereziki prestatua izanik, seguratsunari begira arazo serioak eta larriak planteatzen ditu, eta are gehiago ibilbidearen zati luzeak tuneletan dituenean (“Euskal Y”aren egitasmoak guztira 105km ditu tunelean). AHTaren abiadura handiak, gainerako azpiegituren gertutasunak eta merkatalgai arriskugarrien garraioari atxikitzen zaizkion arriskuek ezbeharrak gertatzeko aukerak handitzen ditu.

Lurralde antolaketari eragindako ondorio desorekatzaileak: AHTaren sistemak area metropolitano handien arteko lotura azkarra baino ez du landuko. Horrek lurralde desorekak erabat larriagotuko ditu. Hala, AHTarekin estu loturik, EAEn hiri-aglomerazio handi batean polarizaturiko lurralde eskeima berri baten alde egiten ari da apustu, adituek jada “Euskopolis” edota “Euskal Megahiria” deitzen dutena. Egoera kezkatzeko modukoa da, azken aldian hitzetik hortzera baitabil Euskal Herria “hiri” bakar bat bihurtuko lukeen megapolis handiaren ideia. Eta, gure eskualdeari gagozkiola, ikuskera horren adierazle zuzen gisa, Donostialdetik Baionaraino hedatzen den lurraldean “eurohiria” deritzon europear mailako metropoli berri bat eraikitzeko --*eraiki* hitzaren benetako adieran-- egitasmoa agertu dute. “Donostia-Baiona Eurohiria” egitasmo horrek eta barne hartzen dituen egitasmo nagusiek, hala nola AHTa eta Jaizkibelgo Superportua, beste adibide askoren artean, batik bat jarduera ekonomikoaren sektore batek --garraioak eta logistikak-- hegemonizatzen duen lurralde okupazio bortitza dakarte berekin, eta, ingurugiro eraso latza eragiteaz gain, espazio metropolitano “transnazional” eta guztiz globalizatu bat sortzea dute helburu, baina pertsonen beharretatik urrun eta lekuan lekuko bizitza sozialaren eta kultur nortasunaren mesprezuan oinarrituta.

AHTak giza desberdinkeria gero eta handiagoak sortuko ditu: AHTa tren bat baino gehiago da: klase menperatzaileen ikur modernoa da. Kapitalismo basatieneri datxekion eredu ekonomiko eta sozial desarrollista eta xahutzailearen adierazle da; Euskal Herria etekinen produkzioa mugagabe emendatzeko logika absurduak gidaturiko globalizazio ekonomiko neoliberalaren markoan guztiz txertatzeko funtsezko proiektua. Mundualizazioaren garapen eredu hori gizarte arloan gupidagabea da, pobrezia eta bazterketa sortzailea; sustrairik gabekoa da, ekonomia, politika, gizarte eta kultur egitura autoktonoak birrintzen dituena; etorkizunik gabekoa da, baliabide naturalen hondatzailea. Egitasmo honen eragin ikaragarria, beraz, ez dagokio soilik ingurugiro arloari, eta bere ondorioak ekonomia, lurralde egitura, kultura eta, azken finean, gure gizartearen eta identitate kolektiboaren eraketan gauzatzen da.

Egitasmo inposatzailea da: Egin da inolako informazio gardentasunik gabe eta jendearen parte hartzea oztopatuz, erabateko pobrezia demokratikoaren isla. Horregatik, pentsatzekoa da gizartea erabakitzeke ahalmenik gabe uzten duen tankera honetako eraso indartsu eta bortitzak erantzun eta erresistentzia sortuko dituela bere egiazko interesak ezagutzeko eta beste bizimodu baten alde irmo borrokatzeko kapaz diren herri eta auzoetan. Jakina, badago beste era bateko harremanak imajinatzea, bai gizartean eta bai gizakiaren eta naturaren artean. Borroka luze eta zaila dator, bai --nola ordea izan liteke bestela?--, baina gure herrian egungo garapen ereduak sorrarazi dituen eztabaiden artean bizienetarikoa izango dela dirudi, asko eta asko baikara haien hizkuntzan mintzo ez garenak, edota haiek bezala pentsatu, desio edo amets egiten ez dugunok.

**Donostialdea-Bidasoako
AHT GELDITU! Elkarlana**